

Aurkibidea

| | |
|------------------|---|
| A | 1 |
| Inbertsioa | 1 |
| Krisia 1 | 2 |
| Krisia 2 | 3 |
| Hiztegia | 3 |
| Ebazpenak | 3 |
| Inbertsioa | 3 |
| Krisia 1 | 4 |
| Krisia 2 | 4 |
| Hiztegia | 6 |

Inbertsioa

→ **Bi testu dituzu behean: bigarrena lehenengoaren berridazketa da, baina hutsune batzuk ditu. Amaitu jatorrizko testua berridazten; horretarako, erreparatu letra lodiz idatzitakoari. Jarri berba bat hutsuneko.**

Inbertsioa

Anjel Lertxundi. *Berria*, 2009-03-11

1. testua

Daukazu diru apurra gordetzeak **ez ditu zorionik ekarriko**, kontu jakina da, zeuk ere denak hemen utzita **alde egin beharko duzu-eta**. Daukazu diru apurrarekin gauzak erostea ere **ez omen da** zorionaren iturri: objektuak pilatzen dituzu, baina ez zoriona; pisuak, akzioak, **auto ederrak eskuratzen dituzu**, baina ez zoriona.

Orduan? Zer egin?

Bidaia, kontzertuetara edo antzerkira joan, lagun arteko jatorduak egin... **Orain gutxi argitaratu** duten inkesta baten arabera, esperientziak erosten gastatu behar omen genuke dirua, horrek omen dakarrelako zoriona; dirua bizi-esperientzietan gastatzeak omen dakar bizirik gaudela **sinistera bultzatzen** gaituen gasolina.

Bidaiek, kontzertuek edo lagun arteko jatorduek **gu behar gaituzte**: *gure* erabaki eta aldartea, *gure* inplikazioa eta *gure* denbora eskatzen dizkigute. Horregatik, inplikatu nahi ez dugulako, segitzen dugu **gurik gabeko** zorion bat erosi nahian.



2. testua

Daukazu diru apurra gordetzeak ez ⁽¹⁾ _____ egingo, kontu jakina da, zeuk ere denak hemen utzita alde egin beharra ⁽²⁾ _____ duzu-eta. Daukazu diru apurrarekin gauzak erostea ere ez

omen⁽³⁾ _____ zoriona: objektuak pilatzen dituzu, baina ez zoriona; pisuen, akzioen, auto ederren⁽⁴⁾ _____ egiten zara, baina ez zorionaren.

Orduan? Zer egin?

Bidaiatu, kontzertuetara edo antzerkira joan, lagun arteko jatorduek egin... Argitaratu⁽⁵⁾ _____ duten inkesta baten arabera, esperientziak erosten gastatu behar omen genuke dirua, horrek omen dakarrelako zoriona; dirua bizi-esperientzietan gastatzeak omen dakar bizirik gaudela⁽⁶⁾ _____ digun gasolina.

Bidaiek, kontzertuek edo lagun arteko jatorduek *gure*⁽⁷⁾ _____: *gure* erabaki eta aldartea, *gure* inplikazioa eta *gure* denbora eskatzen dizkigute. Horregatik, inplikatu nahi ez dugulako, segitzen dugu *gurik* ez⁽⁸⁾ _____ zorion bat erosi nahian.

Krisia 1

→ **Entzundakoa kontuan hartuta, bete hutsuneak zerrendako hitzekin. Testua hiru ataletan ematen da. Atal bakoitzaren berba-bankuan, bi hitz sobera daude.**

Krisia

Andoni Egaña. *Euskadi Irratia*. 

I

| | | |
|-----------------|-------------------|--------------------|
| baino | dagokionez | jakinean |
| bat | darabilen | legamiatzen |
| besteren | datorkeen | mingosten |
| bezain | gertu | |

Inguruetako egunkariak bat etorri dira joan den asteko egun batean titular nagusiari⁽¹⁾ _____: "Ekonomia % 0,5 haziko dela dio orain Eusko Jaurlaritzak, aurrez iragarri⁽²⁾ _____ gutxiago". Joera guztietako egunkariak berri nagusia hautatzean⁽³⁾ _____ egiten badute,, kontuz, hor badago zeozer eta. Krisi-beldurra hedatu zen lehenik; krisia bera heldu da gero, bortitz, eta krisi-izua⁽⁴⁾ _____ hasi zaigu barruan, ez baitakigu noraino luza ditzakeen atzaparrak oraingo baxualdi honek.

Krisiarekin euriarekin gertatzen zaidana gertatzen zait niri: etxetik⁽⁵⁾ _____ baldin banaiz, ez nau izutzen; propio ere irten ninteke bueltaxka bat ematera,⁽⁶⁾ _____ nahi dudanean etxera itzuli, lehortu eta arropa berriak jantziko ditudala. Euria

soldaduskan zen txarra. Han goizeko zortzietan busti eta, nola beti⁽⁷⁾ _____ mendeko zenbiltzan, noiz arropaz aldatuko zinen ez jakiteak⁽⁸⁾ _____ zizun eguna. Eta boladatan ahaztu egiten zaigu, baina gizarte hau... Soldaduska derrigorrezkoa da... Ez dakigu sekula zer⁽⁹⁾ _____.

II

| | | |
|-------------------|-----------------|------------------|
| berri | etekinik | suharrago |
| bezala | genuke | zaigu |
| dakienaren | hartan | zor |
| deritzon | negarra | |

Erretzaileok estigmatizatuak izan ginen⁽¹⁰⁾ _____ esaten nuen nik, piper (arrazoi osoaren jabe ez dela⁽¹¹⁾ _____ pipertasunaz), badirela kontu asko erretzea baino galgarriagoak. Esate baterako, egungo kreditu-sistema eta sistema horren sekretukeria. Hala asmatu zuten eta naturala egiten⁽¹²⁾ _____; baina ez dakit hain naturala den.

Zergatik ez dakigu parean dagoenaren egiazko egoera ekonomikoaren⁽¹³⁾ _____? Kopetan eraman behar luke bakoitzak txarteltxo bat duenaren edo⁽¹⁴⁾ _____ duenaren berri emanez. Xelebrea litzateke... jatetxe batera sartu eta begiratu batean jakin ahal izango⁽¹⁵⁾ _____: "Kontxo!, ardorik garestiena eskatu duen hark ia ehun milioiko zorra dauka!". Edo aireportuan oporretara doan familia bat ikusi, eta esango genuke: "Ulertzekoa horiek Puntacanara joatea, ehun milioi dauzkate eta!". Edo okerragoa: enpresak⁽¹⁶⁾ _____ ematen ez duela eta orain itxi nahi duen nagusiaren kopetako txartelean berrehun milioi irakurriko balute langileek,⁽¹⁷⁾ _____ ekin ahal izango liokete lanpostuari eusteko borrokari. Edo ezin dela ezer egin eta itxi egin beharko dutela onartzen duen sindikalistaren bekokian aldeko milioiak ikusiko bagenu, edo beti⁽¹⁸⁾ _____ jotzen ari direnanean...

III

| | | |
|----------------|-----------------|------------------|
| bada | gaitzake | ote |
| denak | hurbil | zapuztu |
| gaindi | omen | zipriztin |
| gainera | onera | |

Bati baino gehiagori entzun diot krisi hau ez zaigula gaizki etorriko, txarrak ekar gaitzakeela geure⁽¹⁹⁾ _____. Ez dakit, ordea, hori ez den miseria gorriaz⁽²⁰⁾ _____ dagoenaren ikuspegi sasielkartasunezkoa. Lanik, etxerik eta laguntzarik gabe geratu⁽²¹⁾ _____ ez du horrela pentsatuko.

Puztu, hustu, ⁽²²⁾ _____ ... hoskideak dira. Globoa puztu-puztu egin zen eta hustu beharra dago, zapuztuko ez ⁽²³⁾ _____, lehertuta. Horretarako, baina, geuk hustu beharko ditugu gure kontsumo-ohiturak, gure irrikak sortzeko joerak, gure egungo izaera.

Umore ⁽²⁴⁾ _____ batekin amaitu nahi nuke. Umoreak ez du ezertarako balio, baina ezerk ez duela ezertarako balio pentsatzera iristen garenean, umoreak bakarrik salba ⁽²⁵⁾ _____. Badut lagun bat bohemioa (*bon vivant* horietakoa, zehazkiago aitortuta) esaten duena berari krisia ongi etorriko zaiola: orain artean eutsi ⁽²⁶⁾ _____ dio lanik egin gabe, eta, orain, lana urritu den honetan, ez omen da hasiko, erretiroa ⁽²⁷⁾ _____ ikusten du.

Krisia 2

→ Zein da Seguiolaren hitzaldia laburbiltzeko lau proposamen hauetatik egokiena?

Krisia

Iñaki Seguiola. *Euskadi Irratia*. 

- Ezeroso dago Seguiola, aberatsak izaten baitira krisialdiari etekin gehien ateratzen diotenak, pobreak pobreak bihurtzen diren bitartean.
- Krisiaren jatorrizko esanahiari erreparatuta, egun jasaten dugunari ezin zaio krisia deitu, berez *krisia* hitzak medikuntzarekin zerikusia duelako.
- Aberatsen poltsak arintzen direnean, orduantxe hasten dira hedabideak krisia aipatzen, munduko pobreenen egoera ez baita sekula albiste izaten.
- Senideentzako gomendio bat da Seguiolaren mintzaldia, arduratuta baitago beren espiritu kritikoa lantzen ez dutelako.

→ Adi mintzaldi horren azalpenari.

Hiztegia

Hona hemen aurreko ariketetan agertu den hiztegiaren lagin bat.

| | |
|--------------|--------------|
| anabasa | mendeko |
| batez beste | mingostu |
| betealdi | onera etorri |
| etekin | suhar |
| garatu | zapuztu |
| gizabanako | ziprintin |
| kinka | zor |
| legamia | |
| litxarrerria | |

→ Bete zerrendako hitzekin esaldietako hutsuneak.

- Ababorrera egin genuen eta Harriandi paretik joan ginen, uhin _____-ek masaila bustitzen zigutela.
- Beste behin, Renfek inflazioaren oso gainetik dagoen garestitzera jotzea erabaki du aurten ere: % 1,85 garestitu ditu, _____, aldirietako trenen eta distantzia ertainekoen prezioak.
- Bilboko taldea ezinean aritu zen lehen minutuetan, Realak defentsan eraikitako harresia gainditu ezinda, baina pixkanaka bere _____ zen.
- Ez al dakizue _____ pixka batek ore gutzia altxatzen duela?
- Lajos diru-behar larrian zen une haietan, amaitzear baitzuen kanbio-letra batzuk ordaintzeko epea: _____ gaiztoan zen, labur esanda.
- Telebistaren pantailak isuritako argia eta erradiazioak _____ egiten du melatonina hormona sortzeko prozesua.

Ebazpenak

Inbertsioa

Daukazu diru apurra gordetzeak ez ⁽¹⁾ **zaitu zoriotsu** egingo, kontu jakina da, zeuk ere denak hemen utzita alde egin beharra ⁽²⁾ **izango** duzu-eta. Daukazu diru apurrarekin gauzak erosteak ere ez omen ⁽³⁾ **dakar** zoriona: objektuak pilatzen dituzu, baina ez zoriona; pisuen, akzioen, auto ederren ⁽⁴⁾ **jabe** egiten zara, baina ez zorionaren.

Orduan? Zer egin?

Bidaiatu, kontzertuetara edo antzerkira joan, lagun arteko jatorduak egin... Argitaratu ⁽⁵⁾ **berri** duten inkesta baten arabera, esperientziak erosten gastatu behar omen genuke dirua, horrek omen dakarrelako zoriona; dirua bizi-esperientzietan gastatzeak omen dakar bizirik gaudela ⁽⁶⁾ **sinetsarazten** digun gasolina.

Bidaiek, kontzertuek edo lagun arteko jatorduek *gure* ⁽⁷⁾ **beharra dute**: *gure* erabaki eta aldartea, *gure* inplikazioa eta *gure* denbora eskatzen dizkigute. Horregatik, inplikatu nahi ez dugulako, segitzen dugu *gu-rik* ez ⁽⁸⁾ **duen** zorion bat erosi nahian.

Krisia 1

Inguruetako egunkariak bat etorri dira joan den asteko egun batean titular nagusiari ⁽¹⁾ **dagokionez**: "Ekonomia % 0,5 haziko dela dio orain Eusko Jaurlaritzak, aurrez iragarri ⁽²⁾ **baino** gutxiago". Joera guztietako egunkariak berri nagusia hautatzean ⁽³⁾ **bat** egiten badute kontuz, hor badago zeozer eta. Krisi-beldurra hedatu zen lehenik; krisia bera heldu da gero, bortitz, eta krisi-izua ⁽⁴⁾ **legamiatzen** hasi zaigu barruan, ez baitakigu noraino luza ditzakeen atzaparrak oraingo baxualdi honek.

Krisiarekin euriarekin gertatzen zaidana gertatzen zait niri: etxetik ⁽⁵⁾ **gertu** baldin banaiz, ez nau izutzen; propio ere irten ninteke bueltaxka bat ematera, ⁽⁶⁾ **jakinean** nahi dudanean etxera itzuli, lehortu eta arropa berriak jantziko ditudala. Euria soldaduskan zen txarra. Han goizeko zortzietan busti eta, nola beti ⁽⁷⁾ **besteren** mendeko zenbiltzan, noiz arropaz aldatuko zinen ez jakiteak ⁽⁸⁾ **mingosten** zizun eguna. Eta boladatan ahaztu egiten zaigu, baina gizarte hau... Soldaduska derrigorrezkoa da... Ez dakigu sekula zer ⁽⁹⁾ **datorkeen**.

+ darabilen | bezain

II

Erretzaileok estigmatizatuak izan ginen ⁽¹⁰⁾ **hartan** esaten nuen nik, piper (arrazoi osoaren jabe ez dela ⁽¹¹⁾ **dakienaren** pipertasunaz), badirela kontu asko erretzea baino galgarriagoak. Esate baterako, egungo kreditu-sistema eta sistema horren sekretukeria. Hala asmatu zuten eta naturala egiten ⁽¹²⁾ **zaigu**; baina ez dakit hain naturala den.

Zergatik ez dakigu parean dagoenaren egiazko egoera ekonomikoaren ⁽¹³⁾ **berri**? Kopetan eraman behar luke bakoitzak txarteltxo bat duenaren edo ⁽¹⁴⁾ **zor** duenaren berri emanez. Xelebrea litzateke... jatetxe batera sartu eta begiratu batean jakin ahal izango ⁽¹⁵⁾ **genuke**: "Kontxo!, ardorik garestiena eskatu duen hark ia ehun milioiko zorra dauka!". Edo aireportuan oporretara doan familia bat ikusi eta esango genuke: "Ulertzekoa horiek Puntacanara joatea, ehun milioi dauzkate eta!".

Edo okerragoa: enpresak ⁽¹⁶⁾ **etekinik** ematen ez duela eta orain itxi nahi duen nagusiaren kopetako txartelean berrehun milioi irakurriko balute langileek, ⁽¹⁷⁾ **suharrago** ekin ahal izango liokete lanpostuari eusteko borrokari. Edo ezin dela ezer egin eta itxi egin beharko dutela onartzen duen sindikalistaren bekokian aldeko milioiak ikusiko bagenitu, edo beti ⁽¹⁸⁾ **negarra** jotzen ari direnengan...

+ bezala | deritzon

III

Bati baino gehiagori entzun diot krisi hau ez zaigula gaizki etorriko, txarrak ekar gaitzakeela geure ⁽¹⁹⁾ **onera**. Ez dakit, ordea, hori ez den miseria gorriaz ⁽²⁰⁾ **gaindi** dagoenaren ikuspegi sasielkartasunezkoa. Lanik, etxerik eta laguntzarik gabe geratu ⁽²¹⁾ **denak** ez du horrela pentsatuko. Puztu, hustu, ⁽²²⁾ **zapuztu**... hoskideak dira. Globoak puztu-puztu egin zen eta hustu beharra dago, zapuztuko ez ⁽²³⁾ **bada**, lehertuta. Horretarako, baina, geuk hustu beharko ditugu gure kontsumo-ohiturak, gure irrikak sortzeko joerak, gure egungo izaera.

Umore ⁽²⁴⁾ **ziprztin** batekin amaitu nahi nuke. Umoreak ez du ezertarako balio, baina ezerk ez duela ezertarako balio pentsatzera iristen garenean, umoreak bakarrik salba ⁽²⁵⁾ **gaitzake**. Badut lagun bat bohemioa (*bon vivant* horietakoa, zehazkiago aitortuta) esaten duena berari krisia ongi etorriko zaiola: orain artean eutsi ⁽²⁶⁾ **omen** dio lanik egin gabe, eta, orain, lana urritu den honetan, ez omen da hasiko, erretiroa ⁽²⁷⁾ **hurbil** ikusten du.

+gainera | ote

Krisia 2

Galderaren erantzuna: C

Feedbacka

Hiztegia

- Hedabide guztiak **aho batez** ari zaizkigu esaten krisia dagoela.
- **Egunak joan eta egunak etorri**.
- **Ondobizien** eskubide partikularra.
- **Errezelo** moduko bat zabaldu da.
- Burtsak ere ez du kontrolatzen **anabasa** hau. **[nahastea]**
- **Betealdia** deituko nioke nik. Betealdi edo saturazioa.
- Eta zer egin gutxiago, eta irabaziak ere gutxiago **batanaz beste**. **[batez beste]**

- Gaixoaldi baten momentu erabakitzaile bat, **kinka** bat, aldaketa bat berehalakoa eta bat-batekoa.

Hitz markatuak

- Mundu zabalean mila milioi lagun goseak edo nahikoa jan gabe **bixi** delarik aspaldian, ez dago krisirik munduan.
- Ez gaitzen gehiegi **emoxionatu**, ["emozionatu" behar lukeen lekuan]

Erreferentzia kulturalak

- Hau da, bagenekien diruak, zakarrak, ez duela bihotzik. ["Diru zakarrak bihotzik ez du/ lotuko dute gogor ta estu..." [Izarren hautsa.](#)]
- "Oi zer malur izigarria, zer bihotz mina emaiten dautan ene izpirituaren zolan!" [Zuberoako kantagintzaren](#) estiloan esana.]

Ironia

- Arriskatu egingo naiz eta iragarpen ausart bat egingo dut: nik uste dut krisia datorrela.
- Gero, mundu guztiak dauka hemen oso ikuspegi zabala eta globala... porlos!
- Munduaren alderdi aberatsa nobedade eta arazotxo batzuekin hasi delarik, mundua krisian dago.
- Krisia, hustasun existentziala bezalaxe, aberatsen ondoez kokkor bat besterik ez da
- Ezin dituela, momentuan behintzat, begiz jotako litxarrerria guzti-guztiak bereganatu, aizu!
- Oso ur ardotua eta txepeldua dago *krisi* hitz hori.

Figura erretorikoak

Epifora edo **epistrofea**. Hitz edo hitz andana bat errepikatzea elkarren segidako enuntziatuen bukaeran.

- Krisia. Zirt edo zart egin behar da; benetan zirt edo benetan zart.

Exhortatio edo **erregua**. Entzulearengan edo irakurlearengan sentipen jakin batzuk pizteko erabiltzen diren erregu- edo agindu-hitzak edo -esaldiak.

- Senide maiteok, garai kritikoa honetan izan ezazue espiritu kritikoa.
- Baina, bueno, ez gaitzen gehiegi emoxionatu, errezero arin bat da hau, ez desengainu zabaldu bat.

Epanalepsia edo **geminatio**. Hitzak edo hitz andanak errepikatzen direnean gertatzen da, esaldiaren hasieran batez ere, baina baita erdian nahiz amaieran ere.

- Krisia gora eta krisia behera, sinetsarazirik hau krisia dela eta krisia hauxe dela.

Hiperbatona. Hitzeko figuren artean sailkaturiko egitura-figura bat da: hizkuntzaren ohiko egitura morfosintaktikoa aldatu egiten da, helburu estetiko, baina ez semantiko. Adjektiboen lekualdatzea da, adibidez, hiperbaton mota klasiko bat.

- Eta zer da, berez, krisia? Zer esan nahi du hitz grekozko horrek?

Transkripzioa

Zer datorren? **Arriskatu egingo naiz eta iragarpen ausart bat egingo dut: nik uste dut krisia datorrela.** Hau da, egunen batean krisia etorriko dela, hau da, etor litekeela **krisia**. Zirt edo zart egin behar da; benetan zirt edo benetan zart.

Bien bitartean hau, oraingo hau, ez baita, nik uste, benetako krisia. Eta horren froga zeharkakoa da hedabide guztiak **aho batez** ari zaizkigula esaten krisia dagoela eta krisia latza dela. Eta hori **egunak joan eta egunak etorri**, eta, hain agerikoa eta hain begien bistakoa balitz, ez lukete **holako lanik hartuko**.

Gero, mundu guztiak dauka hemen oso ikuspegi zabala eta globala... porlos! Munduaren alderdi aberatsa **nobedade** eta **arazotxo** batzuekin hasi delarik, mundua krisian dago. Mundu zabalean mila milioi lagun goseak edo nahikoa jan gabe **bixi** delarik aspaldian, ez dago krisirik munduan.

Jakina, beti gaizki dagoenak ez du krisirik izaten. Krisia, **hustasun existentziala bezalaxe**, aberatsen **ondoez kokkor bat** besterik ez da benetako ikuspegi zabal batetik begirata; krisia diruaren eta arrazoiaren jabe diren **ondobizien** eskubide partikular bat.

Krisia, krisia... Zer gertatzen da, bada? Enpresa handienak, hau da, estatuak diru mordoxka bat banatu duela bankuen artean: dirua lekualdatu egin dela, eskualdatu, entitate batzuetatik beste batzuetara pasa. **Hori da hori gauzaren putza!**

Beste zerbait ere gertatu da, bai. Ez oso agerian, baina **errezero** moduko bat zabaldu da diruari ez ote dion inork antzik ematen. Diruaren gorabeherei eta joan-etorriei, alegia, ez diola inork antzik ematen, eta New Yorkeko burtsak ere ez duela kontrolatzen **anabasa** hau.

Hau da, bagenekien diruak, zakarrak, ez duela bihotzik. Orain ikusten ari garena da ez duela ez bururik ez hankarik ere. Baina, bueno, ez gaitzen gehiegi **emoxionatu**, **errezero arin bat da hau, ez desengainu zabaldu bat**. Hori bai, desengainu zabaldua bai litzatekeela **benetako krisia, edo benetan zirt edo benetan zart egin beharra**.

Baina ez dago holakorik oraingoz, ez dago benetako krisirik oraingoz, eta horregatik esan dut lehenago balitekeela egunen batean krisia etortzea, eta **horregatik ari zaizkigula hedabideak krisia gora eta krisia behera sinetsarazirik hau krisia dela eta krisia hauxe dela eta besterik ez dela**.

Diruaren eskualdatzetik kanpora, zer dago? Bada, dago betealdia. **Betealdia** deituko nioke nik. Betealdi edo saturazio bat munduko alderdi diruduneko almatzenetan.

Eta zer egina gutxiago, eta irabaziak ere gutxiago **batanaz beste (batez beste)**. Eta **gizabanako garatuak, diruaren eta arrazoiaren jabe izanak**, ezin dituela, momentuan behintzat, begiz jotako **litxarrerria** guzti-guztiak bereganatu, aizu! **Oi zer malur izigarria, zer bihotz mina emaiten dautan ene izpirituaren zolan!**

Eta zer da, berez, krisia, zer esan nahi du **hitz grekozko** horrek? Zer dio? **Krisia**, berez, medikuntzako hitza zen eta esan nahi zuen gaitz baten, gaixoaldi baten momentu erabakitzaile bat, **kinka** bat, **aldaketa bat berehalakoa eta bat-batekoa**. Eta handik aurrera edo onera edo txarrenera, edo sendatu edo hil. Horixe zen, berez, krisia.

Eta ez dut uste horretan gaudenik, ez dut uste iritsi garenik erabakitzaile zer egin behar den diruarekin: edo diruarekin bizitzen edo existitzen segi, edo dirua behingoz desegin eta ahaztu behar ote den erabaki beharreko punturaino. Ez dut uste iritsi garenik. Hori litzateke **benetako krisia, benetan**

zirt edo benetan zart egin beharra. Horregatik diot ez dagoela krisirik. Horregatik diot ari zaizkigula esaten etengabe hau krisia dela, krisia hauxe dela.

Oso ur ardotua eta txepeldua dago *krisi* hitz hori. Pentsa, **konparazio batera**, zeri esaten zaion *krisi politikoa*: ministroak harrapatu dituztela diruak putatan edo txaperotan gastatzen, edo holakoxe huskeriak, ez adibidez boterearekin segi edo behin betiko ahaztu behar den, jakina.

Senide maiteok, **garai kritiko honetan**, izan ezazue **espiritu kritikoa**, eta izan ezazue zuek, zeren nik ez baitaukat **espiritu kritikorik** batere, **nik pasio kritikoa** daukat, edo, **hobeto esanda**, **amorrurik kritikoa**.

Hiztegia

1. Ababorrera egin genuen eta Harriandi paretik joan ginen, uhin-**ziprztine** masaila bustitzen zigutela.
2. Beste behin, Renfek inflazioaren oso gainetik dagoen garestitzera jotzea erabaki du aurten ere: % 1,85 garestitu ditu, **batez beste**, aldirietako trenen eta distantzia ertainekoen prezioak.
3. Bilboko taldea ezinean aritu zen lehen minutuetan, Realak defentsan eraikitako harresia gaintu ezinda, baina pixkanaka bere **onera etorri** zen.
4. Ez al dakizue **legamia** pixka batek ore guztia altxatzen duela?
5. Lajos diru-behar larrian zen une haietan, amaitzear baitzuen kanbio-letra batzuk ordaintzeko epea: **kinka** gaiztoan zen, labur esanda.
6. Telebistaren pantailak isuritako argia eta erradiazioak **zapuztu** egiten du melatonina hormona sortzeko prozesua.